

15

PORNOA Larrugorritan




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

© Vitoria-Gasteizko Udala

Testua: EMAIZE Sexologia Zentroa


Marrazkiak eta diseinua: Angel M^a Remírez de Ganuza

emaize



HARA BADA, BESTE BIDEO BAT BIDALI DUTE IKASGELAKO TALDEKOEK. BAIETZ PORNO IZANI!

SEGURU BAI TALDE HORRETAN GEHIEN-GEHIENA PORNOA IZATEN DA ETA.




BAINA IKASGELAKO ZEIN TALDE TAN? NI NAGOEN HORRETAN BEHINTZAT EZ, HORRA INORK EZ DU PORNORIK BIDALTZEN.

ETTE... IZAN ERE, BESTE BAT ERE BADUGU, BAKARRIK MUTILENA.



BAI, BAI... "BETI PREST" TALDEA. JA, JAI!

UTZIDAZU IKUSTEN, AIZU... EA ZER NOLAKO BIDEOAK IKUSTEN DITUZUEN!



BAINA... BENETAN... GUSTATZEN ZAIZKIZUE HALAKO BIDEOAK?



NIRI BEHINTZAT EZ, EGIA ESAN, EZ DAKIT ZERGATIK SEGITZEN DUDAN TALDE HORRETAN.

NIRI GUSTATZEN ZAIZKIT, BAI. GAINERA, BADUTE BETI ZER KASIA.

BENETAN ARI ZARA? BA EZ DAKIT ZER IKASIKO DUZUN... HARA, NIRI BIDEO HORRETAN IKUSTEN DENA EGINO BAZENIT OSO GAIZKI SENTITUKO NINTZATEKE. PORNOAN AGERI DEN ASKO ETA ASKO NESKON AURAKO INDARKERIA DA.



INDARKERIA, BAI. KONTUA DA HAINBESTE ETA HAINBESTETAN IKUSITA, MUTIL ASKOK ARRUNTA BALITZ BEZALA KUSTEN DUTELA, ETA GERO, BATZUETAN, HOR IKUSTEN DUTENA EGIN NAHI IZATEN DUTELA.



PORNOA SUPERMATXISTA DA: NESKOK BETI MENPEKOI EMATEN DU MUTILEK GOGOR EMATEA GUSTATZEN ZAIGULA GUZTIOI! DENA OSO-OSOAGRESIBOA DA, ETA GAINERA KOITOA BESTERIK EZ DA AGERI!



AH, ETA A ZER NOLAKO GORPUTZAKI EZ DIRA BATERE ERREALAK NIREA BEZALAKOA BAKAR BAT ERE EZ.

EZ ZUREAREN, EZ NIREAREN, EZ IA INOREN ANTZEKORIK: PLASTIKOZKO TITI ETA IPURDIK DIRA ETA!



ZAKILAK ERE EZ DIRA BA MAKALAKI!

TIRAAAA, PORNOAN DENA EZ DA MATXISTA. PELIKULA ASKOTAN IRUDI LESBIKOAK AGERI DIRA.

BAI, BAI... MUTIL HETEROAK BEROTZEKO ASMOZ.

BALE, BAINA HORRELA NESKEI ZER GUSTATZEN ZAIEN IKASTEN DUGU.



HARA JON, NESKA GUZTIOK DESBERDINAK GARA, ZUEK, MUTILOKIN GERTATZEN DEN MODUAN. BERAZ, ASKOZ HOBETO ZENUKE NIRI ZUZENEAN GALDETZEA ZER GUSTATZEN ZAIDAN.

HORI DA, HORI! GUK GEUK ERE BADITUGU ETA GURE NAHIAK! ETA BADAKIZU ZER ETA NOLA GUSTATZEN ZAIGUN!



EZAGUTZEN AL DUZU MUTILEK SOILIK OSATUTAKO WHATSSAPPEKO TALDERIK? ZER EDUKI MOTA KONPARTITZEN DITUZTE?

ETA NESKEK SOILIK OSATUTAKORIK? ZEIN ALDE DAUDE BATZUETAKO ETA BESTEETAKO EDUKIEN ARTEAN?

ZURE INGURUAN BA AL DA MUTILEK SOILIK OSATUTAKO WHATSSAPPEKO TALDERIK? ETA NESKEK SOILIK OSATUTAKORIK? ZER NOLAKO EDUKIAK KONPARTITZEN DITUZTE BATEAN ETA BESTEAN? ZEIN ALDE DAGO BIEN ARTEAN?

ZURE USTEZ ZER IKASTEN DA PORNOAREN BITARTEZ?

ZURE USTEAN, NOLA ERAGITEN DU PORNOAK SEXU-HARREMANETAN?

15

desnudando el porno




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

© Vitoria-Gasteizko Udala

Testua: EMAIZE Sexologia Zentroa

Marrazkiak eta diseinua: Angel M^a Remírez de Ganuza

emaize



VAYA, YA HAN VUELTO A ENVIAR UN VIDEO LOS DEL GRUPO DE CLASE. SEGURO QUE ES PORNO.

PERO, ¿EN QUÉ GRUPO DE CLASE? EN EL QUE ESTOY YO, DESDE LUEGO, NADIE MANDA PORNO.

FIJO, EN ESE GRUPO LA MAYORÍA DE LO QUE SE PASA ES PORNO.

ES QUE TENEMOS OTRO EN EL QUE ESTAMOS SÓLO LOS CHICOS



¡SÍ. 'LOS BETI PREST', JAJA.

¡OYE, DÉJAME, A VER QUÉ VIDEOS VEIS!

PERO, ¿EN SERIO QUE OS GUSTAN ESTOS VIDEOS?



A MI, DESDE LUEGO, NO. LA VERDAD ES QUE NO SÉ POR QUÉ SIGO EN ESTE GRUPO

A MÍ SÍ ME GUSTAN. ADEMÁS, SIEMPRE SE APRENDE ALGO.

¡EN SERIO! PUES NO SÉ QUÉ APRENDERÁS, PORQUE DESDE LUEGO, SI A MÍ ME HACES LO QUE SALE EN ESE VIDEO, ME SENTIRÍA FATAL. MUCHO DE LO QUE APARECE EN EL PORNO ES VIOLENCIA HACIA NOSOTRAS.



VIOLENCIA QUE, AL VERLA TANTO, MUCHOS CHICOS LA VEN COMO NORMAL Y LUEGO A VECES QUIEREN PONERLA EN PRÁCTICA.



EL PORNO ES SUPERMACHISTA: LAS TÍAS SIEMPRE SUMISAS. ¡PARECE QUE A TODAS NOS GUSTA QUE NOS DEN CAÑÑA! TODO SUPER AGRESIVO, Y SÓLO COITO, COITO, COITO



Y ENCIMA, VAYA CUERPOS. NADA REALES. NO SALE NINGUNO COMO EL MÍO

NI COMO EL TUYO NI COMO EL MÍO, NI COMO EL DE CASI NADIE: CULOS Y TETAS DE PLÁSTICO



ESO POR NO HABLAR DE LOS PENES.

BUENO, TODO EL PORNO NO ES MACHISTA. EN MUCHAS PELIS HAY ESCENAS LÉSBICAS

SÍ, ESCENAS LÉSBICAS PARA EXCITAR A LOS TÍOS HETEROS.

YA, PERO ASÍ APRENDES LO QUE LES GUSTA A LAS TÍAS.



MIRA, JON. TODAS SOMOS DIFERENTES, COMO VOSOTROS. ASÍ QUE SERÍA MEJOR QUE ME PREGUNTARAS A MÍ DIRECTAMENTE QUÉ ME GUSTA.

¡ESO ES! ¡QUE NOSOTRAS TAMBIÉN TENEMOS NUESTROS PROPIOS DESEOS! ¡Y TAMBIÉN SABEMOS QUÉ Y CÓMO NOS GUSTA!



¿CONOCES GRUPOS DE WHATSAPP SÓLO DE CHICOS? ¿QUÉ CONTENIDOS COMPARTEN?

¿Y DE CHICAS? ¿QUÉ DIFERENCIAS HAY ENTRE LOS CONTENIDOS DE UNAS Y OTROS?

¿EN TU ENTORNO HAY GRUPOS DE WHATASAPP SÓLO DE CHICOS? ¿Y SÓLO DE CHICAS? ¿QUÉ TIPO DE CONTENIDOS COMPARTEN CADA UNO DE ELLOS? ¿QUÉ DIFERENCIAS HAY?

¿QUÉ COSAS CREES QUE SE APRENDEN A TRAVÉS DEL PORNO?

¿CÓMO CREES QUE PUEDE INFLUIR EL PORNO EN LAS RELACIONES SEXUALES?

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

GAIAK

Erotikaren eredu pornografikoa
Pornoari buruzko gezur eta mitoak
Pornoaren eragina maskulinitatearen eta
feminitatearen sozializazioan

HELBURUAK

- Eredu pornoerotikoa aztertzea, eta agerian jartzea pornografiak transmititzen dituen mitoak eta uste ustelak.
- Pornografiak gure harreman erotikoetan duen eragina aztertzea.
- Pornografiak gizonezko eta emakumeen sozializazioan duen eraginaren inguruan hausnartzea.
- Berdintasunezko harreman erotikoak sustatzea, oinarrituak adostasunean, eta elkarrekiko errespetuan zein norberaren buruarekiko errespetuan

TEMAS

Modelo pornográfico de la erótica
Mentiras y mitos del porno
Socialización de la masculinidad y la feminidad a
través del porno

OBJETIVOS

- Analizar el modelo pornoerótico, desmontando los mitos y falsas creencias que la pornografía transmite.
- Analizar la influencia que tiene la pornografía en nuestras relaciones eróticas.
- Reflexionar sobre la influencia de la pornografía en la socialización masculina y femenina.
- Fomentar unas relaciones eróticas igualitarias, basadas en el consenso, en el respeto mutuo y hacia una/o misma/o.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

SARRERA

Honela defini dezakegu pornografia: gizakiak sortutako materiala, hainbat euskarritan (zeramika, pintura, literatura, zinema...) praktika edo egoera erotikoak esplizituki irudikatzen dituen, hura kontsumitzen duena kitzikatzeko asmoz.

Pornografia ez da duela gutxi sortutako fenomeno: antzinako Grezian aurkitzen dira gaur egun pornografikotzat jo genitzakeen irudiak (hots, gure garaiko moralaren arabera). Fenomeno berri samarra da, ordea, pornografia hedatzen duen industria, zein XIX. mendean hasi baitzen garatzen. Orduetik hona, pornografiak produktu bat eta bakarra saldu izan du: fantasia, ameskeria baino ez. Pornografia negozio bihurtzearekin bat, produktua aldatu egin zen, eta gizonezkoen fantasia erotikoaren elikagai bihurtzen hasi zen.

Horrenbestez, pornografiak imajinarioarekin du zerikusia, errealitatearekin baino. Baliteke hori izatea pornoaren eta gazteek egiten duten haren kontsumoaren inguruko arazo nagusienetako bat: pornografia errealitatearen irudikapena dela pentsatzea. Pornoak fantasiak islatzen ditu, eta fantasia desiraz egingo dago, material ukiezin horretaz. Pornografiak ukitu transgresore bat izan du beti, eta ez da inoiz errealitatea islatzen saiatu.

Bada pornoak bereziki ondo egiten asmatu duen zerbait, komunikazioaren aurrerapen teknologiko oro aprobetxatzea, horien bidez zabaldu eta hedatu ahal izateko. Aurrerabide horietako lehena inprenta izan zen, gero argazkigintza etorri zen, ondoren zinema, geroago bideoa, eta azkenik Internet.

INTRODUCCIÓN

Podríamos definir la pornografía como aquel material de creación humana que representa prácticas o situaciones eróticas de manera explícita, en distintos soportes (cerámica, pintura, literatura, cine...) y que persigue la excitación de quien lo consume.

La pornografía no es un fenómeno reciente; ya en la antigua Grecia encontramos representaciones que hoy -bajo la moral de nuestro tiempo- podríamos calificar de pornográficas. Lo que sí es un fenómeno relativamente nuevo es la industria que lo difunde, que comenzó a desarrollarse a partir del siglo XIX. Durante todo este tiempo, la pornografía siempre ha vendido el mismo producto: fantasía. Es a partir de la conversión de la pornografía en negocio cuando cambia el producto y comienza a ser un alimento de la fantasía erótica masculina.

Por tanto, la pornografía tiene que ver con el imaginario y no tanto con la realidad. Quizá ése sea uno de los principales problemas relacionados con el porno y su consumo por la población juvenil: pensar que es una representación de la realidad. El porno refleja fantasías y la fantasía está hecha de ese material inasible que es el deseo. La pornografía siempre ha tenido un punto transgresor y nunca ha tratado de reflejar lo real.

Si algo ha sabido hacer especialmente bien el porno, ha sido aprovechar cualquier avance tecnológico de la comunicación que permitiera su expansión. El primero de estos avances fue la invención de la imprenta, luego vino la fotografía, más tarde el cine, después el vídeo y, por último, internet.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

Sareen sareak historian inoiz ez bezala hedatzea ahalbidetu dio pornoari, hainbeste, non halakoren bila ez dabilzanengana, halakorik kontsumitu nahi ez dutenengana ere iristen baita. Haurrak beren dimensio erotikoa garatu baino lehen hasten dira material pornografikoa ikusten, artean ikusten dutenarekin alderatzeko inolako erreferentzia "errealik" ez dutelarik. Nerabeen % 30ek baino gehiagok onartzen du ikasteko asmoz ikusten duela pornoa; horrenbestez, **kalitatezko sexu-hezkuntza jasotzen ez duten** pertsonentzat pornoa **erotikari buruzko jarraibide-liburu** bihurtzen da.

Horregatik, guztiz garrantzitsua da hezkuntza-eragileok kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharraz jabetzea, halakoa non gazteen artean hausnarketa kritiko eta autonomia sustatuko duen. Gure lana gazte horiek tresnez hornitzea da, ez kontsumoa debekatzea; izan ere, gauza jakina da debekuak ez dakarrela debekua bera hautsi nahia baino.

EREDU PORNOEROTIKOA

Jarraian, eredu honen ezaugarrietako batzuk aztertuko ditugu:

- Pornografiak **maskulinitate eredu hegemoniko bat** islatzen du; **feminitatea, aldiz, menpeko agertzen da, soilik plazer-emaile gisa**. Emoziorik, goxotasun eta erromantizismorik gabeko erotika bat islatzen du, non emakumeekiko indarkeria nagusitzen baita.

La red de redes ha permitido su expansión como nunca antes en la historia, haciendo que llegue incluso a personas que ni siquiera la buscan o desean consumir. Las niñas y niños, antes de haber desarrollado su dimensión erótica, comienzan a ver material pornográfico, sin ningún tipo de referencia "real" con la que comparar. Más del 30% de los adolescentes reconoce que ve porno como manera de aprendizaje, por lo que para aquellas personas que **no reciben una educación sexual de calidad**, el porno se convierte en su **libro de instrucciones sobre la erótica**.

Por ello, es de vital importancia que las y los agentes educativos tomemos conciencia de la necesidad de una educación sexual de calidad que fomente la reflexión crítica y autónoma de las y los jóvenes. Nuestra labor es dotarles de herramientas, no prohibirles su consumo, ya que, como bien sabemos, la prohibición sólo alimenta el deseo de romperla.

MODELO PORNOERÓTICO

A continuación, vamos a ver alguna de sus características:

- La pornografía muestra una **masculinidad hegemónica frente a una feminidad complaciente y sumisa**. Nos muestra una erótica en la que no hay emociones, carente de ternura y romanticismo, en la que la violencia hacia las mujeres es una tónica generalizada.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

- Kontuan hartu behar da erotikaren eredu pornografikoa gure geure eredu erotikotik beretik abiatzen dela, baina puztu egiten duela hura, batere neurririk gabe. Pornoak **erotika koitozentrista eta guztiz genitalizatua** islatzen du. Ez du gorputz osoko erotikarik erakusten; gainera, guztiz baztertzen du elkartze intimoetan bizipen atseginean zentzumenek duten garrantzia.
- Pornoan ikusten den guztia aktoreen artean -gizonezko zein emakumezko- aurretiaz adostu den arren, **pornoko istorioetan ez da kontsentsurik agertzen**. Ezta sedukzio edo limurtze konturik ere. Pornoko istorioetako pertsonak "prest daude" beti, eta une jakin batean ez badaude, geroago egongo dira. Ugariak dira oso norbait borondatearen kontra harremanak izatera behartu ondoren, azkenean gustatzen zaizkion istorioak.
- Pornoan agertzen diren **gorputzak** ez dira gorputz errealen aniztasunaren isla. Gehienetan edertasun-eredu hegemonikoen arabera gorputzak agertzen dira: kirurgia estetikoko ebakuntzak izan dituzten bularrak, bulba berdintsuak... Zakilekin ere gauza bera: beti tamaina handikoak, beti zuzenak eta tente-tenteak. Alabaina, azkenaldian pornoa hainbat kategoria edo etiketen arabera sailkatzen hasi da; hartara, nolabaiteko gaikako aniztasuna antzematen da, baina emakumeen gorputz-katalogo bat balitz bezala. Gizonezkoen gorputzei dagokienez, erreferentzia bakarra zakilaren tamaina da.
- Hay que tener en cuenta que el modelo pornográfico de la erótica parte de nuestro propio modelo erótico, pero lo exagera e hiperboliza. El porno refleja una **erótica coitocentrista y totalmente genitalizada**. No muestra una erótica de cuerpo entero, olvidando, además, la importancia que tienen los sentidos en la vivencia placentera de un encuentro íntimo.
- A pesar de que todo lo que vemos en el porno ha sido previamente acordado entre actores y actrices, **el porno no nos cuenta historias de consenso**. Ni siquiera nos cuenta historias de seducción o cortejo. Cuenta historias en las que las personas siempre están dispuestas, y si no lo están, acabarán estando. Las historias en las que a alguien en contra de su voluntad se le obliga a mantener relaciones y al final le acaban gustando, son muy numerosas.
- Los **cuerpos** que aparecen en el porno no representan la diversidad de los cuerpos reales. Es habitual que se muestren sólo los que encajan en los modelos de belleza hegemónicos: pechos con operaciones estéticas, vulvas idénticas... Incluso sucede lo mismo con los penes: siempre de gran tamaño, rectos y en erección. En los últimos tiempos, sin embargo, comienzan a aparecer distintas categorías o etiquetas para la búsqueda del material y que muestran cierta diversidad, pero como si de un catálogo de cuerpos femeninos se tratara. En lo que respecta a los cuerpos masculinos, sólo aparece referencia al tamaño del pene.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

- Pornoaren erotika **“finalista” da beti**, betiere orgasmoa baita amaiera, eiakulazio itzel batez lagundua. Plazera gizonezkoen orgasmo sentzaziora mugatzen da. Gainera, **plazer kuantifikatu egiten du**, orgasmo eta eiakulazio kopuruaren bitartez. Eredu honek kantitatea lehenesten du, eta kalitatea baztertzen: bi, hiru edo lau, beti bat baino hobeto, berdin da zertaz ari garen, maitaleez, zakilez edo orgasmoez.
- Eredu pornoerotikoak **ez du inoiz kontrazepzioa esplizitatzen**, ezta infekzioen aurreko babesa ere. Bideo batzuetan preserbatiboa ikusten da, ikusi, baina ez hura jartzeko unea. Une hori baztertu egiten da filmaren edizio prozesuan.
- Gay pornoan **porno heterosexualean agertzen diren praktikak, portaera-jarraibide eta botere-harreman berberak** agertzen dira. Sexualitatearen ikuspegia erabat koitozentriko eta falozentrikoa da gay pornoan ere; izan ere, interesgune bakarra zakilen -eta horien neurriak- zein sarketen inguruan antolatzen dira aktoreen gorputzak eta elkarren arteko interakzioak. Gizonezkoen irudi hipermaskulinizatua eta estereotipatua sustatzen da. Sexu-harremana aktibo - pasiboa dikotomia gisa irudikatzen da, sarketa nor egin eta nork jaso, beste irizpiderik gabe, betiere ikuspegi heterozentriko batetik (muskulinoa sartzen dena, femeninoa hartzen duena). Izan ere, rol-aldaketa gutxi ikusten da, menderatze-dinamika oso markatuak irudikatzen baitira oraindik ere. Elementu bakar batean agertzen du gay pornoak alde nabarmena porno heterosexualean: gehiago ikusten da preserbatiboa.
- La erótica del porno siempre es **“finalista”** y ese final siempre es el orgasmo, acompañado de una gran eyaculación. Se reduce el placer a la sensación orgásmica masculina. Esto además va acompañado de una **cuantificación del placer** en el número de orgasmos y eyaculaciones. Es un modelo que prioriza la cantidad y que desprecia la calidad: dos, tres o cuatro siempre son mejor que uno, hablemos de amantes, de penes o de orgasmos.
- En el modelo pornoerótico **nunca se explicita la anticoncepción** o la protección frente a infecciones. En algunos vídeos se ve el preservativo, pero nunca se ve el momento en el que se coloca. Esta parte se elimina en la edición de la película.
- El porno gay reproduce **prácticas, pautas de comportamiento y relaciones de poder similares a las representadas en el porno heterosexual**. Seguimos ante una visión completamente coitocéntrica y falocéntrica de la sexualidad ya que los cuerpos de los actores y sus interacciones giran en torno a sus penes, sus dimensiones y sus penetraciones. Se fomenta una imagen hipermasculinizada y estereotipada de los hombres. La relación es representada como una dicotomía entre activo o pasivo, en base a quién penetra o es penetrado, desde una óptica heterocéntrica (musculino quien penetra y femenino quien es penetrado). De hecho, el rol y el cambio de roles durante las escenas no suele ser muy frecuente, ya que se siguen representando dinámicas de dominación y sometimiento muy marcadas. En lo único que se puede observar un cambio significativo del porno gay respecto del heterosexual, es que hay mayor presencia del preservativo.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

Matxista izateaz gain (erotika indarkeriarekin lotuta), pornografia nabarmen etnozentrista, lesbofobia, homofobia, transfobia eta kapazitista da, hain zuzen ere hura sortzen eta kontsumitzen duen gizartea bera bezala. Aniztasunik inoiz agertzen bada, desira maskulino, zuri eta heterosexuaren mende agertzen da: hura lehenesten da, eta fetitxe bihurtzen ditu gainerako subjektuak, zein agertzen baitira gozamen-emaile agortezin gisa, baina gozatzeko eskubiderik gabe.

Pornografiaren beste alderdi bat nabarmendu nahi dugu, **mutil gazteenen sozializazioan duen eraginari** dagokiona. Pornografia gizonezkoen sozializatzeko bide ere bihurtu da, Whatsapppeko taldeen bidez material pornografikoa konpartitzen duten gizonezkoen arteko harreman modu bat. Talde horietan ez da ia bestelako interakziorik, bideoak elkarri bidaltzea izan ezik. Pornografia kontsumitzen hastea heldutasunera bideratzeko hastapen-errito gisa bizi dute. Argazki, meme eta bestelakoen trukeak ez du, askotan, hartzailea entretenitzea edo barrea eragitea beste asmorik. Badakigu pubertaroan eta nerabezaroaren hasieran aldaketa emozionalak ere izaten direla -beste batzuen artean-, zeinen arabera norberaren sexu- edo genero-identitatea birdefinitzeko prozesua gertatzen baita. "Krisialdi" pertsonaleko une horretan ("krisialdia" aldaketa gisa ulertuta), pornografia hegemonikoak zenbait balio transmititu dizkie beraiengandik espero denari buruz: gizon aktiboak izan behar dute, desira bizikoak, ekimena hartuko dutenak, oldarkorrak, menderatzaileak, uneoro zer egin dakitenak, alde emozionala baztertzen dutenak. Ikusleak, gizonezko heterosexuak, uste batean, aktorearekin identifikatuko direla espero da.

La pornografía, además de machista (donde las erótica se vincula a la violencia) , es claramente etnocéntrica, lesbófoba, homófoba, tráfoba y capacitista, como la sociedad que la crea y la consume. La diversidad que aparece está representada desde una perspectiva que privilegia el deseo blanco, masculino y heterosexual y que fetichiza al resto de sujetos, quienes aparecen como otorgadores inagotables de placer, pero sin derecho al mismo.

Queremos destacar otro aspecto de la pornografía y es el referido a su **influencia en la socialización de los chicos más jóvenes**. La pornografía se ha convertido en una forma de socialización masculina, una manera de relacionarse entre hombres, que comparten material pornográfico a través de grupos WhatsApp. Son grupos en los que apenas hay otro tipo de interacciones, salvo la de envío de vídeos. El acceso a la pornografía se presenta como una especie de rito de iniciación a la madurez. El intercambio de fotos, memes... muchas veces sólo tienen como objetivo entretener o hacer reír al otro. Sabemos que los cambios puberales y el inicio de la adolescencia también traen consigo cambios a nivel emocional, dándose un proceso de redefinición de la propia identidad sexual o de género. En ese momento de "crisis" personal -entendida como cambio-, la pornografía hegemónica transmite valores sobre lo que se espera de ellos: deben ser hombres activos, deseantes, que toman la iniciativa, agresivos, dominantes, que saben en todo momento lo que hay que hacer, que rechazan lo emocional... Se espera que el espectador, presuntamente masculino y heterosexual, se identifique con el actor.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

Hara, bada... Horra, beste behin ere, patriarkatuak sistema gisa ezarri duenaren ale bat gehiago: maskulinitate hegemonikoa indartuta, bai eta sentiberatasun maila txikiko gizonak ere, emozioetatik urrunak, enpatiarik gabeak, egozentrikoak.

Nesken sozializazioari dagokionez, pornografia mota horren kontsumoak emakume esaneko eta mendekoekin loturiko feminitate-“balioak” barneratzera eraman ditzake....

Hausnarketa sustatu behar dugu neska-mutilekin, batetik, maskulinitate- eta feminitate-eredu horiek berekin dakartenari buruz -beste maskulinitate-eredu “disidente” batzuk sustatuz-, eta bestetik, norberaren desirekin konektatzeko eta horiek asertiboki adierazteko gai izateko beharrari buruz.

Horregatik, ezinbestekoa da gazteei pornografia begi kritikoarekin begiratzeko gaituko dituen tresnak ematea, eredu pornografikoak erotika errealean duen eragina aztertzea, eta transmititzen dituen ideia faltsuak ezeztatzeak. Berdintasunezko harreman erotikoak sustatu behar dira, adostasunean eta elkarrekiko zein norberaren buruarekiko errespetuan oinarrituak.

Así, tenemos más de lo mismo, más de lo que el patriarcado como sistema ha ido forjando: fortalecimiento de la masculinidad hegemónica, en la que se potencia el valor positivo de los hombres insensibles, alejados de sus emociones, con falta de empatía, egocéntricos.

En lo que respecta a la **socialización de las chicas** el consumo de este tipo de pornografía puede llevarlas a interiorizar “valores” de feminidad asociados a la sumisión, el sometimiento...

Debemos generar debates reflexivos con chicos y con chicas sobre lo que supone estos tipos de masculinidad y feminidad, potenciando otros modelos de masculinidades “disidentes”; y por otra parte sobre la necesidad de conectar con los propios deseos y ser capaz de expresarlos asertivamente.

Es por ello imprescindible dotar a las personas más jóvenes de herramientas que les proporcionen una visión crítica de la pornografía, analizar cuál es la influencia del modelo pornográfico en la erótica real y desmontar las falsas ideas que trasmite. Hay que fomentar unas relaciones eróticas igualitarias, basadas en el consenso y en el respeto mutuo y propio.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

Hori dela eta, hezkuntza-eragile orok dagokion garrantzia eman behar dio sexu-hezkuntzari, pornografia ez dadin izan sexu-hezkuntzaren eta erotikoaren iturri bakar edo nagusia.

Dinamika honen bidez errealitatearen eta fikzio pornografiko nagusiaren arteko desberdintasunei buruzko hausnarketa kritikoa egiten lagundu nahi dugu, subjektuei, gorputzei eta praktika erotikoei dagokienez. Gainera, ariketaren bidez, pornografiak imaginario erotikoen eraikuntzan zein norberaren gorputzaren onarpenean duen eraginari buruzko kontzientzia sortu nahi da, bai eta norberaren desira, emozio eta abar ezagutu eta antzematean ere.

Por ello, cualquier agente educativo debe tomarse en serio la educación sexual, con el fin de que la pornografía no se convierta en la única o mayor fuente de aprendizaje sexual y erótico.

A través de la siguiente dinámica se pretende reflexionar críticamente sobre las diferencias que existen entre la realidad y la ficción pornográfica dominante, en lo que respecta a los sujetos, los cuerpos y las prácticas eróticas. Además, se pretende generar conciencia con respecto a la influencia de la pornografía en la construcción del imaginario erótico, en la aceptación del propio cuerpo, así como en la importancia de conocer y reconocer los propios deseos, emociones...

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

SAKONTZEKO DINAMIKAK

1. DINAMIKA: Pornografiaren eta errealitatearen arteko aldeak aztertzea (gutxi gorabeherako iraupena: 100 minutu)

Dinamika hasteko, taula bat banatuko diegu partaideei (**I. fitxa**). Bertan zenbait ezaugarri biltzen dira, kategoriatan haren inguruan: emakume eta gizonezkoak, gorputz sexuatuaren anatomia eta fisiologia, eta jokabide erotikoa.

- Banaka edo taldeka (taldea handiago edo txikiago izan), partaideek pornografiaren eta errealitatearen aldeak deskribatuko dituzte. 15 minutu inguru emango dizkiegu lan horretarako.
- Eman dituzten erantzunak konpartituko dituzte talde osoaren aurrean, kategoriaz kategoriaz. Dinamizatzaileak **II. fitxa** izango du eskura, haren bidez hausnarketa eta elkarrizketa sustatzeko. Lan horrek 40 bat minutu har ditzake.
- Gero, erantzun horiek guztiak jasoko dituen horma-irudi bat egingo dute partaideek, ikasgelako horma batean jar daitekeena. 45 minutu inguru eman diezaiekegu jarduera burutzeko.

DINÁMICAS PARA PROFUNDIZAR EN EL TEMA

DINÁMICA 1: Analizando las diferencias entre la pornografía y la realidad (duración aprox 100 minutos)

Para comenzar la dinámica se compartirá con el grupo una tabla (**Ficha I**) en la que aparecen diferentes aspectos sobre mujeres y hombres, anatomía y fisiología de cuerpos sexuados, así como sobre conductas eróticas.

- De manera individual o grupal (dependiendo del grupo), harían una descripción de cómo son los distintos aspectos en la pornografía y en la realidad. Para ello se les proporciona unos 15 minutos.
- Puesta en común de las respuestas que han dado, aspecto por aspecto, recogiendo todas las ideas de todas las personas o grupos. Quien dinamicamente dispondrá de la **Ficha II**, para poder estimular la reflexión y el diálogo. Para ello se dispondría de unos 40 minutos.
- Realización de un mural colaborativo que recogiera todas estas respuestas y que podría colocarse en una pared del aula. Esta actividad podría hacerse en unos 45 minutos.

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

Dinamika honen bidez pornografiaren eta erotika errearen arteko aldeez hausnartzen jarraituko dugu.

- Talde txikitan biltzera gonbidatuko ditugu ikasleak, bi zerrenda osatzeko: lehengoan, berez ustean pornoan inoiz agertzen ez diren hamar elementu jasoko dituzte, eta bigarrenean ageri ohi diren beste hamar elementu. 15 minutuko tartea emango diegu horretarako.
- Gero talde handian bilduko dira, bateratze lanerako, eta arbelera pasako dituzte elementu horiek guztiak, ideia-jasa edo "brain-storming" gisa. 15 minutu inguru emango dizkiegu lan horretarako.
- Behin elementu guztiak arbelean bildu dituztelarik, taldekideek elementuen "top 10" aukeratuko dute bozketa bidez, hau da, bi pertsonen arteko harreman erotikoa atsegina eta asegarría izan dadin nahitaez agertu behar luketen elementuen zerrenda osatuko dute, eta hausnartu egingo dute elementu horien garrantziaz. 30 minutu inguru beharko dituzte.

En esta dinámica se continúa reflexionando sobre la diferencia entre la pornografía y la erótica real.

- Se les invita a ponerse en grupos pequeños, en donde elaborarían dos listados: uno con las diez cosas que creen que nunca aparecen en el porno y otro listado con diez aspectos que habitualmente aparecen. Dispondrán de unos 15 minutos
- En grupo grande, se hace puesta en común y se recoge en el encerado a modo de lluvia de ideas todos esos aspectos. Para ello se contará con otros 15 minutos
- Una vez recogidas todas, el grupo decide por votación cuál sería el "top 10" de aquellos aspectos imprescindibles para que un encuentro erótico entre dos personas sea satisfactorio, y se reflexiona sobre por qué. Esto puede durar unos 30 minutos

I. FITXA:

	Pornografia	Errealitatea
Nortasuna		
Sedukzioa		
Testuingurua		
Botere-harremanak		
Maskulinitatea		
Feminitatea		
Gorputz sexuatuak		
Gorputzei begiratzea		
Gorputz motak		
Biloa		
Gizonezkoak		
Zakilaren itxura eta tamaina		
Zakilaren erekzioa		
Gizonezkoen eiakulazioa		
Orgasmoa		
Asetasun erotikoa		
Emakumezkoak		
Emakumeen bularra		
Bulbaren itxura eta tamaina		
Lubrikazioa		
Emakumeen eiakulazioa		
Orgasmo femeninoa		
Asetasun erotikoa		
Praktika erotikoak		
Partaideak		
Eredu erotikoa		
Sarketa		
Bagina-koittoa		
Besterik		
Testuingurua		

II. FITXA:

	Pornografia	Errealitatea
Nortasuna	Oso eskematikoa da pertsonaien alde psikologikoa (izaki abstraktuak, nortasunik gabeak).	Pertsonak konplexuak gara, emozioak ditugu, sentimenduak, eta abar.
Sedukzioa	Sedukzio-prozesua sinplifikatu egiten da, elkarrizketak eta eskariak zuzen-zuzenak dira: baztertu egiten da alde komunikatibo, afektibo eta emozionala.	Sedukzio-jolas moduko bat da, zeinaren bidez gure aukera onenak jartzen ditugun mahai gainean.
Testuingurua	Ez da batere azalpenik ematen testuinguruari buruz, edo zergatik pertsona horiek elkar desiratzen duten.	Pertsona bakoitzaren aurretiazko biografia garrantzitsua da elkartzen direnean.
Botere-harremanak	Desberdintasun egoera. Harremanak botere patriarkalaren mende daude: gizonezko aktibo eta menderatzaileak (eta harekin bat egingo du ikusleak, ustez gizonezkoa eta heterosexuala.)	Bikoteek desberdintasunezko harremanak izaten ohi dituzte.
Maskulinitatea	Rol estereotipatuak Maskulinitate hegemonikoa, mendean hartzen baitu harremana.	Maskulinitate eredu desberdinak.
Feminitatea	Emakume eta beste subjektu feminizatu batzuen mendekotasuna: emakume pasiboak ageri dira, baina beti gizonei nahi dutena emateko prest.	Feminitate eredu desberdinak.
Gorputz sexuatuak		
Gorputzei begiratzea	Gorputz zatikatuak, genitaletara mugatuak ("medicalshot").	Pertsonak elkartzen direnean, gorputz osoa sartzen da jokoan. Ezin dugu ahaztu azala dela zentzumen-organo garrantzitsuena.
Gorputz motak	Gorputz funtzionalak, "akatsik" gabeak, betiere eredu hegemonikoaren (zisexuala, binario estereotipatua...) araberako "perfekzio" irizpideak betetzen dituztenak.	Era guztietako gorputzak, holakoak eta halakoak, baita funtzionalitateei dagokienean ere.

II. FITXA:

	Pornografia	Errealitatea
Biloa	<p>Gero eta gehiago ikusten da depilazio integrala sexu bietan, baita genitaletan ere.</p> <p>Emakumeengan depilazio integrala da nagusi. Venus mendian biloa agertzen bada, "apain" xamar agertzen da, nolabait esateko.</p> <p>Gizonezkoengan bularraldea eta barrabil-zorroa depilatuta agertzen dira.</p>	<p>Ezin jakin edonoren bilo-kantitatea eta bilo hori gorputzeko zein zatitan dagoen, pertsonatik pertsonara desberdina baita.</p> <p>Ez da ahaztu behar pubiseko biloak infekzioetatik babesten dituela genitalak, batez ere bulba eta bagina.</p>
Gizonezkoak	Zisexualak baino ez dira ageri.	Gizonezko gehienek (zisexualek) zakila dute, baina bada baita bulbadun gizonik ere.
Zakilaren itxura eta tamaina	Zuzena eta handiak. Gehienetan ez da prepuzioa ikusten.	Itxura desberdinak daude, baita kurbadunak ere, prepuziodunak edo gabeak... Tamaina aldetik ere alde handiak daude.
Zakilaren erekzioa	"Beti prest"	Erekzioa galdu egiten da, edo, batzuetan, ez da halakorik gertatzen.
Gizonezkoen eiakulazioa	<p>Eiakulazioaren gaineko kontrola</p> <p>Beti ikusteko moduan agertzen da, eta gorputzetik kanpo (baita sarketaren ondoren izanik ere), gizonaren plazeraren baieztapen gisa.</p> <p>Ugaria, oparoa.</p> <p>Semen-jaurtiketa ikusgarria da.</p>	<p>Ez da beti kontrolatu ahal izaten noiz eiakulatu.</p> <p>Semen-kopurua desberdina ohi da aldi batetik hurrengora.</p> <p>Semena jaurtitzeko modu desberdinak.</p>
Orgasmoa	Beti eiakulazioa aldi berean.	Orgasmoa eta eiakulazioa ez dira beti aldi berean gertatzen. Gerta daiteke orgasmorik gabeko eiakulazioa, baita eiakulazio gabeko orgasmorik ere.
Asetasun erotikoa	Beti gertatzen da.	Esperientzia subjektiboak dira. Batzuetan ez da asetasunik gertatzen.

II. FITXA:

	Pornografia	Errealitatea
Emakumezkoak	Gehienetan bulbadun emakumeak. Alabaina, tarteka "trans" kategorian zakildun (betiere zutik) emakumeak ere agertzen dira.	Emakumezko gehienek (zisexualek) bulba dute, baina bada baita zakildun emakumerik ere.
Emakumeen bularra	Kirurgia estetikoak eginak dira, tamainari zein itxurari dagokienez. Titiburuak erdialdean agertzen dira. Azkenaldian zabaltzen ari dira bularraren tamainaren arabera kategoriak.	Desberdinak dira tamaina eta itxurari dagokienez, asimetria ere gertatzen da...
Bulbaren itxura eta tamaina	Kirurgia estetikoak (labioplastia), barneko ezpainak (txikiak) kanpoko ezpainen (handien) gainetik agertzea ekiditeko. Bulben kolorea uniformeak ohi da. Genienetan ez da klitoria agertzen.	Batzuetan, ezpain txikiak (barrukoak) ezpain handien (kanpokoak) gainetik azaltzen dira. Ezpainen kolorea ez da beti uniformeak Klitoriak oso desberdinak dira tamainaren eta itxuraren aldetik (tamaina desberdineko prepuzio eta glandeak.)
Lubrikazioa	Neurriz gainekoa.	Batzuetan ez da "erraz" lortzen.
Emakumeen eiakulazioa	Ohikoa da gaur egungo pornoan ("squirting"). Kitzikapen eta plazer maila handiagoarekin lotzen da.	Noizean behin gertatzen da. Ez du derrigorrez orgasmo-sentsazio edo asetasun erotikoa handiagoa adierazten. Are gehiago, batzuetan esperientzia negatibo gisa bizitzen da.
Orgasmo femeninoa	Emakumeen kitzikapena nabarmen azpimarratzen da keinu, oihu, intziri, hasperen eta abarren bidez, horren xedea ikuslea are gehiago kitzikatzea eta haren desira esnatzea delarik. Ez da emakumeen orgasmoarekiko interesik agertzen.	Aldakorra da adierazkortasunari eta iraupenari dagokienez Emakumeek eginiko soinuak ez dira beti eta derrigorrez kitzikapenaren adierazpen zuzen (gizonezkoen portaera "manipulatzeko" ere erabili daitezke.)
Asetasun erotikoa	Halakorik agertzen bada, oso tarteka agertuko da. Emakumea ondo sentitzea ez da garrantzitsua.	Esperientzia subjektiboak dira. Izan daiteke asetasunik ez gertatzea, nahiz eta orgasmoa bai.

II. FITXA:

	Pornografia	Errealitatea
Praktika erotikoak		
Partaideak	Eredu hegemoniko heteronormatiboa. Bi emakumeren arteko eszenak agertzen badira, ikusle heterosexualari begira eginak dira, ez lesbianentzat. Sarketa-eszenetan, gizonak dira sartzaile, eta emakumeak hartzaile Gay pornoan ere eredu berbera da: hartzaileak rol femeninoa jokatzen du.	Praktika erotikoak sexu bereko edo desberdinekoen artean gertatzen dira. Harreman erotiko jakin bateko partaideek "rol" desberdinak joka ditzakete harreman berean.
Eredu erotikoa	Eredu koitozentriko eta finalista (orgasmoa da xedea.)	Errepertorio erotikoa zabala da.
Sarketa	Sarketaren aukera guztiak agertzen dira, zakila sartzen delarik ahoan, baginan, uzkian Ohikoak dira baita hainbat gizonetzko parte hartzea sarketa praktika berean.	Ez da aukerako "menu erotikoko" plateretako bat baino, ezta plater nagusia ere. Ez da zertan gertatu harreman erotikoetan.
Bagina-koittoa	Koito luzeak agertzen dira. Zakila baginatik ateratzen ikusten da, eiakulazioaren erakusgarri.	Koitoaren iraupena oso aldakorra da. Iraupena ez da asetasunaren adierazle.
Besterik	Ohikoa da gizonetzkoek emakumeekiko praktika oldarkorrak agertzea, esaterako iletik tira egitea... Ez da inoiz negoziatorik agertzen, zer nolako praktikan aritzea nahi duten edo. Era askotako praktika erotikoak ageri dira, delako praktika xehetasun handiz adierazita; horrek murriztu egiten ditu pertsonen arteko harremanak, gorpuztasuna eta plazera.	Erotika "errealean" negoziazioa dago (nahiz eta ez beti eta derrigorrez esplizitu), baita kontsentsua ere, samurtasuna aldean artean... Monotonoak izan daitezke (eta asegarriak aldi berean)
Testuingurua	Pertsona ezezagunak.	Gehienetan, elkarren artean harreman emozionalak dituzten pertsonak.
	Harreman erotikorako, beti dago emakumerik prest.	

FICHA I:

	Pornografía	Realidad
Personalidad		
Seducción		
Contexto		
Relaciones de poder		
Masculinidad		
Feminidad		
Cuerpos sexuados		
Mirada hacia los cuerpos		
Tipos de cuerpos		
Vello		
Hombres		
Forma y tamaño del pene		
Erección del pene		
Eyaculación masculina		
Orgasmo		
Satisfacción erótica		
Mujeres		
Pecho de mujeres		
Tamaño y forma de vulvas		
Lubricación		
Eyaculación femenina		
Orgasmo femenino		
Satisfacción erótica		
Prácticas eróticas		
Participantes		
Modelo erótico		
Penetración		
Coitos vaginales		
Otras conductas		
Contexto		

FICHA II:

	Pornografía	Realidad
Personalidad	Esquematismo psicológico de personajes (seres abstractos sin personalidad)	Las personas somos complejas, con emociones, sentimientos...
Seducción	Simplificación de proceso de seducción, diálogos y demandas expresas: omisión de la parte comunicativa, afectiva y emocional	Seducción como un juego donde exteriorizamos y ponemos en valor nuestras mejores cartas
Contexto	No hay ninguna explicación sobre el contexto o por qué esas personas se desean	Biografía previa de cada persona juega un papel importante en los encuentros
Relaciones de poder	Situaciones de desigualdad Relaciones de poder patriarcales: hombres activos, deseantes, dominantes (con quien se identifica el espectador, se presupone masculino y heterosexual)	Es común que las parejas tengan relaciones de equidad.
Masculinidad	Roles estereotipados Masculinidad hegemónica: posición dominante	Diferentes modelos de masculinidad
Feminidad	Subordinación de las mujeres y otros sujetos feminizados: Mujeres pasivas, pero siempre dispuestas al hombre	Diferentes modelos de feminidad
Cuerpos sexuales		
Mirada hacia los cuerpos	Cuerpos fragmentados, reducidos a genitales ("medical shot")	En un encuentro suele entrar en juego todo el cuerpo. No podemos olvidar que la piel es el mayor órgano sensitivo
Tipos de cuerpos	Cuerpos funcionales, sin "defectos", siguiendo directrices de "perfección" del patrón hegemónico (cissexual, binario estereotipado...)	Cuerpos diversos también en funcionalidades
Vello	Cada vez se da más la depilación integral en ambos sexos, incluso de genitales. Mujeres: depilación integral. Cuando hay vello en el monte de Venus, éste está "arregladito". Hombres: depilación del tórax. Escroto depilado.	Variabilidad en la cantidad y distribución del vello. Tener en cuenta que el vello púbico protege los genitales (sobre todo vulva y vagina) de infecciones.

FICHA II:

	Pornografía	Realidad
Hombres	Sólo cissexuales	La mayoría de los hombres tiene pene (cis), pero los hay también con vulva
Forma y tamaño del pene	Rectos y grandes. Habitualmente no se ve el prepucio.	Formas diversas, incluidas curvaturas, con prepucio y sin él. Tamaños muy diversos
Erección del pene	"Siempre listo"	Pérdida de erección o sin ella
Eyaculación masculina	Control eyaculatorio. Siempre visible, fuera del cuerpo (aunque se dé tras penetración), para confirmar el placer masculino. Abundante Expulsión espectacular del semen.	No siempre se controla cuándo eyacular. Cantidades de semen variables. Expulsión del semen variable.
Orgasmo	Siempre acompañado de eyaculación	Posibilidad de que orgasmo y eyaculación no se den de manera simultánea. Puede haber eyaculación sin orgasmo y orgasmo sin eyaculación
Satisfacción erótica	Siempre	Experiencias subjetivas diversas. Puede no producirse satisfacción
Mujeres	Habitualmente mujeres con vulva. También está presente la categoría "trans", donde salen mujeres con pene, siempre en erección	La mayoría de las mujeres tiene vulva (cis), aunque las hay también con pene.
Pecho de mujeres	Con cirugía estética realizada, tanto en tamaño como en forma. Pezones centrados En los últimos tiempos también se están popularizando categorías según tamaño de pecho	Diverso en tamaños, formas, asimetrías...

FICHA II:

	Pornografía	Realidad
Tamaño y forma de vulvas	Cirugía estética (labioplastia) para que los labios internos (menores) nunca sobresalgan a los externos (mayores). El color de las vulvas suele ser uniforme. Habitualmente el clítoris no aparece.	Labios internos (menores) pueden sobresalir a labios externos (mayores). El color de los labios suele tener diversidad de tonos Los clítoris pueden ser muy variados en tamaño, forma (con prepucio y glande de distinto tamaño)
Lubricación	Exagerada	A veces no es "fácil" sentirla
Eyacuación femenina	Habitual en el porno actual ("squirting"). Asociada a mayor excitación y placer	Se produce a veces. Su existencia no está relacionada con mayor sensación orgásmica ni satisfacción erótica. Incluso se puede vivir negativamente.
Orgasmo femenino	La excitación femenina es muy gestual y expresiva (gritos, gemidos...), con la intención de excitar más al espectador y despertar su deseo. Falta de interés por la representación del orgasmo femenino	Variable en su expresividad y duración. Los sonidos femeninos no siempre son expresión directa de excitación (puede utilizarse para "manipular" el comportamiento masculino)
Satisfacción erótica	Si aparece, es circunstancial. No es relevante que la mujer se sienta bien	Experiencias subjetivas diversas. Puede no producirse satisfacción a pesar de darse orgasmo
Prácticas eróticas		
Participantes	Patrón hegemónico heteronormativo. Si aparecen escenas de dos mujeres, son para público heterosexual, no lésbico Hombres penetradores y mujeres penetradas En el porno gay, el modelo es el mismo: quien es penetrado adopta un rol femenino	Las prácticas eróticas se pueden dar entre personas del mismo o distinto sexo. Cada miembro de quienes toman parte en un encuentro erótico puede adoptar distintos "papeles" dentro de la misma práctica erótica.

FICHA II:

	Pornografía	Realidad
Modelo erótico	Modelo coitocéntrico y finalista (orgasmo)	Diversidad del repertorio erótico
Penetración	Aparece en todas sus modalidades: pene entrando en boca, vagina, ano Tampoco es raro escenas de penetración múltiple	Es parte del posible “menú erótico”, ni siquiera el plato principal. No tiene por qué darse en una relación erótica.
Coitos vaginales	Duración larga. El pene sale de la vagina para mostrar la eyaculación.	La duración de un coito es muy variable. La duración no indica satisfacción
Otras conductas	Habitual ver prácticas agresivas del hombre hacia la mujer, como estirar del pelo... No aparece nunca la negociación sobre qué prácticas se desean mantener Amplia oferta de prácticas eróticas con detalles asociados a la conducta, lo que reduce las relaciones interpersonales, la corporalidad y el placer	La erótica “real” va acompañada de negociación (aunque no sea explícita), consenso, ternura... Pueden ser monótonas (y satisfactorias a la vez)
Contexto	Personas desconocidas	Habitualmente personas con lazos emocionales
	Disponibilidad sexual permanente de mujeres	

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

2. DINAMIKA: Pornoan ikusiko ez dituzun 10 gauza (gutxi gorabeherako iraupena: 60 minutu)

Bi zerrenda hauek balia ditzake dinamizatzaileak, adibide gisa

AGERTZEN DENA:

1. Ekimena gizonezkoen eskutik.
2. Emakumeen eiakulazioa ("squirting").
3. Baginako sarketa.
4. Sarketa bikoitza.
5. Sexu-jarduera taldean.
6. Zartadak.
7. Iletik tiratzea.
8. Arrisku-portaerak.
9. Plazer "mekanikoa".
10. Hizkera matxista, neurritz gain.
11. Emakumezkoen gorputz-aniztasuna, baina katalogo gisa.
12. Emakume femeninoen (aniztasunik ez) arteko harreman lesbikoak, gizonezko heteroei zuzenduak.
13. Trans emakume hiperfeminizatuak.
14. Aniztasun etniko estereotipatuak.

AGERTZEN EZ DENA:

1. Musuak.
2. Laztanak, ferekak.
3. Samurtasuna.
4. Emozioen adierazpena.
5. Praktika erotikoen gaineko negoziazioa eta kontsentsua
6. Ekimena emakumeen eskutik.
7. Arrisku-jardueren prebentzioa: preserbatiboa jantzi eta erabiltzea.

DINÁMICA 2: 10 cosas que no ves en el porno (duración aprox 60 minutos)

Le sugerimos a la persona dinamizadora estos dos listados, que pueden servirle como ejemplo

APARECEN:

1. Iniciativa masculina
2. Eyaculaciones femeninas ("squirting")
3. Penetraciones vaginales
4. Dobles penetraciones
5. Sexo en grupo
6. Azotes
7. Estirones de pelo
8. Conductas de riesgo
9. Placer "máquina"
10. Lenguaje extremadamente machista
11. Diversidad de cuerpos femeninos, pero como catálogo
12. Relaciones lésbicas de mujeres femeninas (no diversidad), para público masculino hetero
13. Mujeres trans hiperfeminizadas
14. Diversidad étnica estereotipada

NO APARECEN:

1. Besos
2. Caricias
3. Ternura
4. Expresión emocional
5. Negociación y consentimiento sobre las prácticas
6. Iniciativa femenina
7. Prevención de conductas de riesgo: colocación y uso del preservativo

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

8. Plazera osasunarekin, lasaitasunarekin eta ongizatearekin harremanetan.
9. Menstruazioa.
10. Gizonezkoen gorputzen aniztasuna.
11. Aniztasun funtzionala (pertsona horiek objektu bihurtu ezean.)
12. Gizonen arteko gorputz-kontaktua (gay pornoan izan ezik).
13. Sexu-aniztasuna: trans gizonak edo gorputz ez binarioak.

8. Placer vinculado a salud, tranquilidad y bienestar
9. Menstruación
10. Diversidad de cuerpos masculinos
11. Diversidad funcional (salvo que se objetualice a estas personas)
12. Contacto corporal entre hombres (salvo en porno gay)
13. Diversidad sexual: hombres trans o cuerpos no binarios

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

MATERIAL LAGUNGARRIA

- Ikus-entzunezko materiala

Hezkuntza-eragileentzako:

Sexo, porno y feminismo mahai-inguruaren (2018) zati bat. Beatriz Gimenoren mintzaldia (gaztelaniaz)

<https://youtu.be/ftHZCDfgD-0>

Pornografiaren eragina ongizate erotikoa eta emozionalean (gaztelaniaz). Mainer García de Vicuña eta Raúl Marcosen (Emaize Sexologia Zentroa) hitzaldia

<https://www.youtube.com/watch?v=dfDy5oeev1o>

Gazteentzako:

Whatsappeko taldeak bizitza errealean - 1. atala: Gizonezkoak (gaztelaniaz) - Jajajers

https://youtu.be/GPp2S8Hls_Y

Honela kontsumitzen dute pornografia gazteek (gaztelaniaz)

https://www.lasexta.com/programas/el-intermedio/gonzo/asi-consumen-pornografia-los-jovenes-empece-a-ver-porno-con-13-anos-es-lo-mas-similar-que-hay-a-la-educacion-sexual-video_201812175c181a490cf25104c70f3626.html

Pornoko sexua vs. Sexu erreala (ingelesez)

<https://youtu.be/gWD0LPtCuTI>

MATERIAL DE APOYO

- Material audiovisual

Para agentes:

Extracto de la mesa redonda sobre Sexo, porno y feminismo. Intervención de Beatriz Gimeno

<https://youtu.be/ftHZCDfgD-0>

Influencia de la pornografía en el bienestar erótico y emocional. Conferencia de Mainer García de Vicuña y Raúl Marcos (Emaize Centro Sexológico)

<https://www.youtube.com/watch?v=dfDy5oeev1o>

Para jóvenes:

Grupos de Whatsapp en la vida real - Cap.1 Hombres. - Jajajers

https://youtu.be/GPp2S8Hls_Y

Así consumen pornografía las personas jóvenes

https://www.lasexta.com/programas/el-intermedio/gonzo/asi-consumen-pornografia-los-jovenes-empece-a-ver-porno-con-13-anos-es-lo-mas-similar-que-hay-a-la-educacion-sexual-video_201812175c181a490cf25104c70f3626.html

Porn Sex Vs Real Sex

<https://youtu.be/gWD0LPtCuTI>

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

Pornoaren mitoeta gezurrak (gaztelaniaz) - TheTripletz eta AmarnaMiller

<https://youtu.be/b2WqLalE8m0>

Allen King: "Pornoan hasi nintzenetik, euskal jarraitzaile asko ditut"

<https://youtu.be/pjDaBBRQn-M>

Keep It Real Online - Pornography (ingelesez)
<https://www.youtube.com/watch?v=94mINLDSWIk&list=PL63ZI-398W-P3ZeAuTmB5T9RxPZtGh69i>

- Baliabide didaktikoak

"Construcción del imaginario sexual en las personas jóvenes. La pornografía como escuela" gidaliburua (gaztelaniaz). María Rodríguez Suárez

http://www.cmpa.es/datos/571/LA_CONSTRUCCION_DEL_IMAGINARIO_SEX36.pdf

Tenemos que hablar de porno. Guía para familias: el consumo de pornografía por parte de los y las adolescentes gidaliburua (gaztelaniaz). Save the children

https://www.savethechildren.es/sites/default/files/2020-09/Tenemos_que_hablar_del_porno.pdf

https://www.savethechildren.es/sites/default/files/2020-11/Pornoari_buruz_hitz_egin_behar_dugu.pdf

Mitos y mentiras del porno - The Tripletz con Amarna Miller

<https://youtu.be/b2WqLalE8m0>

Allen King: "Pornoan hasi nintzenetik, euskal jarraitzaile asko ditut"

<https://youtu.be/pjDaBBRQn-M>

Keep It Real Online - Pornography
<https://www.youtube.com/watch?v=94mINLDSWIk&list=PL63ZI-398W-P3ZeAuTmB5T9RxPZtGh69i>

- Recursos didácticos

Guía "Construcción del imaginario sexual en las personas jóvenes. La pornografía como escuela" María Rodríguez Suárez

http://www.cmpa.es/datos/571/LA_CONSTRUCCION_DEL_IMAGINARIO_SEX36.pdf

Tenemos que hablar de porno. Guía para familias: el consumo de pornografía por parte de los y las adolescentes. Save the children

https://www.savethechildren.es/sites/default/files/2020-09/Tenemos_que_hablar_del_porno.pdf

https://www.savethechildren.es/sites/default/files/2020-11/Pornoari_buruz_hitz_egin_behar_dugu.pdf

15. KOMIKIA - PORNOA LARRUGORRITAN

COMIC 15: DESNUDANDO EL PORNO

ESTEKA INTERESGARRIAK

<https://www.fad.es/notas-de-prensa/fad-lanza-un-a-campana-para-prevenir-el-consumo-de-pornografia-entre-los-menores/>

Cosas que explicar a los niños sobre el porno / El Correo (gaztelaniaz)

<https://www.elcorreo.com/vivir/padres-hijos/educacion/explicar-ninos-sobre-20211012133225-ntrc.html>

ENLACES DE INTERÉS

<https://www.fad.es/notas-de-prensa/fad-lanza-un-a-campana-para-prevenir-el-consumo-de-pornografia-entre-los-menores/>

Cosas que explicar a los niños sobre el porno / El Correo

<https://www.elcorreo.com/vivir/padres-hijos/educacion/explicar-ninos-sobre-20211012133225-ntrc.html>

